



Eranskina (Tributu nagusien laburpena) Diru bilketa metatua 2016ko azaroan

ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA

Diru bilketa metatua, 2016ko azaroan, % 3,8 gehitu da, 2015eko azarokoarekin alderatuta.

ZUZENEKO ZERGAK: +3,7%

1) PFEZ: +5,4%

Lan etekinen atxikipenak % 3,1 gehitu dira (iaz aldi horretan berean baino 19 milioi gehiago). Datu horiek berretsi egiten dute ezen enplegua Araban sendotu ez ezik hazi ere egin dela.

Ekonomia jarduera bat gauzatzen dutenek egindako ordainketa zatikatuak hazi egin dira % 4,6, 2015ean epe horretan bertan egindakoen aldean.

Horrez gain, errenta kanpainaren bigarren epeko diru sarreraren arabera, berretsi egiten da zerga horren diru-bilketan izandako hazteko joera, eta hasierako aurreikuspenak nabarmen hobetzen dira.

2) SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAK (Kuota diferentzial garbia): + 3 milioi euro

Suspertu egin da diru-bilketa, Estatuak egindako arau aldaketarekin, zeinak urriko bigarren ordainketa zatikatuari eragin baitzion. Horri esker, konpentsatu egin dugu diru bilketan izandako galera, Araban Estatuaren araudiaren pean jarduten diren enpresek egiten dituzten konturako ordainketen lehenbiziko epekoa.



Prentsa Oharra Nota de Prensa

ZEHARKAKO ZERGAK: +1,5%

1) BEZa: +0,3%

BEZaren diru bilketa, iazkoarekin alderatuta, suspertzen ari da, nahiz eta esportazioak eta EB barneko entrega BEZaren jasanarazpenik gabekoak gehitu.

2) HIDROKARBUROAK: +4,3%

Hidrokarburoen eta Tabakoaren gaineko Zerga Bereziako diru bilketa gehitu egin da % 4,3 eta % 4,2 artean, hurrenez hurren, zerga horiekin kargatutako produktuak gehiago kontsumitu direlako.